

GABON-KANTAK

(S. AGEDAREN DOÑUZ)

Belenen zauden aurcho maitia
nere Jainkua zera zu:

zure arpegi eder gorriya
lastantzen laga zadazu.

Etzaitez nere pekatu gaiztoz,

Jauna, etzaitez oroitu:

maitasun gori, bigun onenaz
guziyya nai det kitatu.

Gure echera etortzen bada
Jesus-Jaungoiko maitia,
aur ederraren gozagarrizat
daukat opilla gordia.

Gabon gabeko sugar aundiyan
opilla erreko diyot;
alkar maiteko degu aurrerontz
lastan eztiyetan biyok:
aur onek ekarriko dizkit bai
poz aundiya t'atsegiña;
ordain onean emango diyot
arroz esnetan egiña.

Gure echera etortzen bada
Jesus-Jaungoiko maitia,
aur ederraren gozagarrizat
daukat opilla gordia.

Aurrerontz, nolaz, nolaz dezaket
aur eder ori goibeldu,
nere biyotzak baldin geyago
iñor maitatzen ezpadu?

Zu zera aurcho zoragarria
gure echian biarra!
aldendu bedi egin-arazo
sarri dizudan negarra.

Gure echera etortzen bada
Jesus-Jaungoiko maitia,
aur ederraren gozagarrizat
daukat opilla gordia.

ZERUKO IZARRA

Choriyak berez kantari
goizabar ederrenari,
berritsu, pizkor, t'azkarri
daukate moko t'eztarri.
Begira, goruntz begira:
odeyak urdindu dira.
Badator zeru-argiya,
Aur Jesus maitagarriya.

Badatoz onuntzaraño
ozkarbiyetik beraño,
argi matazen erraño
garbiyak urria baño.
Ta zer dakarte gordian
argi-printz ederrenian
urrezko seaska ortan?
Aur Jesus maitia lotan!

R. INZAGARAY